

HONDAKINEN PREBENTZIOA,
BALORIZAZIOA ETA TRATAMENDUA

GIDALIBURU PRAKTIKOA

# Amianto-hondakinekin zer egin?

Pays Basque
Euskal Herria
COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE ELKARGOA

# kasu

## amiantoa ez da onartzen honda-kindegietan.

Amiantorik baldin bada zure etxebizitzan, **arnastuz geroz zure osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen zuntzak askatuak izan daitezke obra batzuk egiteko orduan. Birika-albeoloetara hel daitezke eta eritasun larriak sor ditzakete.** Neurriak hartu!

## nola askatzen da amiantoa?

- Amiantoa (mineraletik datorrena) eraikuntzarako ekaiak, autogintza, ehungintza, plastikozko ekaiak eta abarretan erabilia izan da luzaz ezaugarri bikainak baititu: erregaitza, ustelgaitza, erresistentzia termikoa eta kimikoa, soinu-isolamendua eta prezio apala. **1997tik goiti, amiantoa erabiltzea debekatua da.**
- Amiantoa aurki daiteke oraindik eraikuntzarako ekai zaharretan hala nola isolatzaileak, husteko hoditeria, garaje batentzat teilatu gisa erabilitako burdin xafla izurtuak adibidez. Zahartzearekin, ekaia irinkorra bilakatzen da, hausten da eta inguruko airean egoten diren zuntz mikroskopioak askatzen ditu.
- Zaharberritze obretan, gerta daiteke amiantoa duten ekaiak kendu behar izatea. Orduan, eskatutako **arauen araberako ziurtagiriak dituzten enpresei dei egitea** azkarki gomendatua da.

## non aurkitzen da amiantoa?




## amiantoa ote da?

Jakiteko, profesional bat dei ezazu, diagnostiko bat eginen dizu.

# PROFESIONAL BATI DEI EGIN



Arriskuak mugatzeko, amiantoa eta amianto-hondakinak kentzeko lanak utz ditzakezu amiantoa duten ekaien kentzeko eta konfinatzeko lanetan ziurtagiriak dituen enpresa baten esku.
Arauen araberako ziurtagiriak dituzten enpresen zerrenda eskuragarri dago kalifikazio ziurtagiriak ematen dituzten erakundeen aldean: Qualibat, Afnor certification eta Global certification.

## IPAR EUSKAL HERRIAN, AMIANTOA KENTZEKO ZIURTAGIRIAK DITUZTEN ENPRESAK* (PARTIKULARRENTZAT ETA PROFESIONALENTZAT) :

| HERRIA | ENPRESA | TELEFONO ZENBAKIA |
|---|---|---|
| Angelu | ATTILA CÔTE BASQUE<br>Profesionalentzat bakarrik | 05 59 43 79 23 |
| Azkarate | HUALDE | 05 59 37 09 87 |
| Idauze-Mendi | ARLA & CIE S.A.R.L. | 05 59 28 09 26 |
| Lehuntze | ARLA ADOUR BATIMENT | 05 59 28 09 26 |

Proiektu oro abiatu aitzin, enpresarekin harremanetan jarri behar da. Segurtasun aginduak zorrozki errespetatu (onartutako/ez onartutako hondakinak, nola norbera babestu, paketatzea, norbera babesteko ekipamenduak botatzea, etab.).

## KASU: AMIANTOA EZ DA ONARTZEN HONDAKINDEGIETAN.

**Zaharberritze lanak edo amiantoa kentzekoak egiten dituen enpresak amianto-hondakinen ardura hartuko du (kentzea, paketatzea, tratatzeko gunerako garraioa).**

# AMIANTOA BAKARRIK KENTZEA EZ DA GOMENDATUA.

1

**ZAHARBERRITZE OBRAK BAKARRIK EGIN NAHI BADITUZU, HORRA ZURE BURUA BABESTEKO ETA INGURUMENA BEGIRATZEKO ZENBAIT AHOLKU.**

Amiantoa ukan dezaketen ekaiak eskuetan erabili behar badituzu, zure buruaren eta zure auzokideen gainean izan daitezkeen ondorioen erantzule izanen zara ! Amiantoa kentzeko berezitua den enpresa bati ez badiozu dei egiten, neurriak hartu.

Amianto-hondakinak eskuetan erabiltzeko :

- **zuntzak aska ditzakeen ekintza oro saihestu** (hautsi, segatu, zilatu, karrakatu, marruskatu);
- **hondakinak busti** zuntzen isurtzea eta aireztatzea mugatzeko;
- **zure burua babestu** erabilera bakarreko eskularruak, betaurrekoak, FFP3 motako erabilera bakarreko arnas maska, bota daitekeen lan-jantzi kaputxaduna, erabilera bakarreko gain-zapatak erabiliz;
- **zure ingurukoak ere zaintzea** gogoan hartu.

Amianto-hondakinak gordetzeko:

- **amianto-hondakinak** hermetikoki **paketatu**;
- neurri handiko hondakinak (estaldura plakak) edukiera handiko **plastikozko zaku batean biltzen** ahalko dira (ehundutako zakua) edo **paleta batean ezarriak eta kanpo estalki batez estaliak**;
- neurri ttipiko hondakinak **plastikozko zaku hermetiko batean biltzen** ahalko dira (zikinontzi zakua) edo mintz batean (adibidez hazkurrien estaltzeko mintza), eta ondotik, bigarren plastikozko zaku batean.
- Norbera babesteko ekipamenduak poliki kendu eta plastikozko zaku hermetiko batean bildu;
- Dutxa azpian artoski garbitu, batez ere ileak, esku hartu eta gero;
- Biderik egin behar baduzu, erremorka hobetsi.

Edozein kasutan, **“Amiantoa” aipamena ezarri behar da argiki.**

**HEMENDIK AITZINA, BI AUKERA DITUZU:**

| AMIANTOA ETXEAN BILARAZI — 2 PUNTUA | BEHERAGO ZEHAZTUTAKO GUNEETARA BOTA — 3 PUNTUA |
|---|---|

**AMIANTOA EZ DA ONARTZEN HONDAKINDEGIETAN**

2

**ETXEAN BILARAZI**

**ETXEKO BILKETA BATEN BIDEZ, AMIANTO-HONDAKINEN ARDURA HAR DEZAKETEN ENPRESAK* (64 ETA 40 DEPARTAMENDUETAN) :**

| HERRIA | ENPRESA | TELEFONO ZENBAKIA |
|---|---|---|
| Azkarate (64) | HUALDE | 05 59 37 09 87 |
| Lacq (64) | TROISEL PYRÉNÉES SAS | 05 59 60 36 66 |
| Mirepeix (64) | SOCIÉTÉ DE DÉMOLITION DÉPOLLUTION DÉSAMIANTAGE ENVIRONNEMENT | 06 38 64 95 00 |
| Montardon (64) | RECYDIS | 05 59 12 63 20 |
| Mourenx (64) | MATA - MONTAGE ASSISTANCE TECHNIQUE AQUITAINE | 05 59 21 39 09 |
| Morcenx (40) | INERTAM | 05 58 04 17 49 |
| Saint Geours de Maremne (40) | CLIKECO AQUITAINE | 05 58 55 59 50<br>06 80 96 16 00 |
| Tartas (40) | CHIMIREC DARGELOS | 05 58 73 89 70<br>06 10 38 08 10 |

## AMIANTOA NORA BOTA?
## (ARAUEN ARABERA)

Amianto-hondakinak garraiatzeko:
https://agirpourlatransition.ademe.fr/particuliers/maison/dechets/faire-dechets-damiante

### AMIANTO-HONDAKINAK ONARTZEN DITUZTEN GUNEAK*, ARAUEN ARABERA (64-40-65):

| HERRIA | ENPRESA | TELEFONO ZENBAKIA |
|---|---|---|
| Aire sur l'Adour - 40 | Terralia (groupe Paprec) | 05 58 03 21 38 |
| Morcenx - 40 | INERTAM | 05 58 04 17 49 |
| Saint Avit - 40 | CLTDI | 05 58 85 29 74 |
| Montardon - 64 | Recydis (filière Paprec) | 05 59 12 63 20 |
| Ade - 65 | Société générale d'entreprises pyrénéennes | 05 62 94 63 67 |
| Lannemezan - 65 | PSI | 05 62 98 35 40 |

**Oharra :** Angeluko Cetraid enpresak profesionalen ekarpenak baizik ez ditu onartzen (harremanetarako: 05 59 42 52 22).
Proiektu oro abiatu aitzin, enpresarekin harremanetan jarri behar da.

### Eraikin bat saltzeko edo suntsitzeko orduan, betebehar batzuk daude.

**Argibide gehiagorako**
https://agirpourlatransition.ademe.fr/particuliers/maison/dechets/faire-dechets-damiante



KRISOTILO ZUNTZEXKAK, TRANSMISIOZKO MIKROSKOPIO ELEKTRONIKO BATEZ 50 000 ALDIZ HANDIAGOTURIK

*ZERRENDAK EZ DIRA OSO-OSOAK. BESTE ENPRESARIK BALDIN BADA, GUREKIN HARREMANETAN SARTU 05 59 57 00 00 ZENBAKIRA DEITUZ.
EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK 2022/06/03 AN EGUNERATUTAKO DOKUMENTUA.

PAYS BASQUE
EUSKAL HERRIA

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE
ELKARGOA

bil ta garbi

communaute-paysbasque.fr

mak2com